Euzkadi

EUROPA'KO BAKALDUNAK ETA ERRKALDERRIJAK

Borbon'dar Albontsa'ko, ogetabederatzi urtian España'ko bakalduna ixan danok, bakalduntzeari lagata, bere sendijagaz iges-egin eban atzerrira juan dan illean.

Beraz, orei urte onetan bakaldunak kendu, ta erkala ipiñi daben laterrijak ixan dira sei: Portugal, Rossia (Errusia), Deutsetzland (Alemania), Osterreitz (Austria), Hellas (Gerzia) ta España. Eta Ezerna-gora (Montenegro) laterritxuba Yugoeslabia'k azpiratu ebanian, bertako bakalduna bakalduntza-barik itxi eben.

Urte orreik baño lenago "lau" erkalderri bakarrik egozan: Andorra, San Marino, France ta Suiza.

Azkenengo gudate-aruan edo amaituta-gero sorturiko laterri barrijak-be erkala autu eben euren jaurpidetzat. Ona emen euren ixenak: Polonia, Txekoeslobakia, Li[illegible] Irlanda ta Dantzig. Azkenengo au uri b[illegible] (Beltza) deroz orain Europa'n.

Bakaldunak daukoezan laterrijok amabost dira: England (Ingalaterra), Belgika, Nederland (Holanda), Daumark (Dinamarka), Norge (Noruega), Sverige (Suezia), Ungari (1), Luxemburgo, Liechtenstein, Monako, Italia, Bulgaria, Yugoeslabia, Islandia ta Romania. Gañera, Doipusuba (Aita santuba) Roma urijan, Batikano deritxon inguru barruban, bera da ango buru.

Gorago diñogu ogei urte onetan bakalduntza-etatik jaurtitako notiñak ixan dirala saspi; lau oraindiño bixirik dagoz, ta dira: Hohenzollorn'dar Gillelma (11'g Gillelma) Deutsehland'ekua; Braganza'tar Imanol (11'g Imanol) Portugal'gua; Borbon'dar Albontsa (XIII'g Albontsa) España'kua ta Slevig'ctar Gorka (11'g Gorka) Gerzia'kua.

Alexandrovitz'etar Nikola (11'g Nikola) erail eben boltzebitarrak 1918'garren urtian, Errusia'ko sorkaldian, Ekaterinburgo urijan.

Habsburgo'tar Karla (IV'g Karla) Osterreitz'ko agimenduna (enperadoria) ta Ungari'ko bakalduna ixan zana Madeira ugarteko Funtxal bururijan il zan 1922'garren urtian. Eta nun eztakigun-arren, Montenegro'ko Petrovitz'etar Nikola (1'gko Nikola) 1921'garrenian

SOFOA.

(1) Ungari, bakalderrija dan-arren, bakaldunik eztauko.

Euzkaldun Salerosleai

Idazle gorengo askori zor, euzkel atal onek lortu daben edertasunak iraun dagian EUZKADI onek euzkerazko iragarki edo anuncioak emetik aurrera agertuko dauz. Bazotxak gura daben zatian edo tamañuan eta guradaben eran agertuko dira, baita bakotxak gura daben egunean bere.

Onexek izango dira saneurri edo presiuak:

Illean iragarki bat, lerroko edo lineako, 0,75 laurleko.
Astean iragarki bat, lerroko, 0,50.
Astean iru iragarki, lerroko, 0,40.
Egun oro iragarki bat, lerroko, 0,30.

Guztiak oartuten dagoz iragkerra izan daiteke. Orrela luzaroagoan txindi emon bearra bere txiarkia izan daitela lerro gitxikoa, iruan dagile iragarkiak.

Iragarkiak eztazu zabaldu bearra lerro askotan eukiten, sarri agertzean baño.

ERIJETATIK

ERMU

KANPAZAR-ERA!

Askatasuna-aldriak, autu danku datorren iganderako, egun zoragarri bat, mendigoxaliok alkarregaz ospatu daigun mendi tontorr aretan.

Askatasunako-gudariak, irtengo dute, beren txoko-tik, goxeko saspi-terdietan, talde izugurizko bat, omen idijua neska ta mutil, danbolin eta laita ere, gure Ikurrin ederra, aurrez aurre erangoan dutela; datorren igandea izango da, emen inguruetako mendigoxalientzak egun gomuta-garrizko bat.

Auzo urietako mendigoxaliak, aupada bulartsu onatan esaten dautzut, intzo eman gabe, ekarri daizubela igandean gure iru margodun ikurriña-eta ezinik ezdaukarutenok danbolina ere bai.

Izena aldatu eta
Gu gera lenguak,
Orain Askatasuna
Eta antxina
Auspo Lagunak.

EUGABI-ZALIAK!

Zurrumurua datzart gaur atal onetan, enagelako estuer jakina; baña, arazu onetzaz, ezin nezake izil egon zeozertzu azaldu gabe.

Jakitu mini naben lez, oker edo zuzen, egiskoa bada, aurraz, ematen dizubet, neure zorion zutzubena, emengo nezkatilla aberkidiak, daruazun asmo alberkayatzaz, garaya giñuan benetan neskatillak, eta zulen lenbiziko asmua, gustio onarukorra da gure aberria-rendako, jarraitu aurrera neskatillak, Gañeko egun baten onetzaz etorrikonais.

IGANDEAN BILBON

Geure Jel-aretako baskide diron Mallagarai eta Txindurri, ospatu yakun igandean Bilbao-ko Deportivo-n-yokatu dute, partidu eder bat Solagaistua eta Orosko'ren aurka, guretarrak garralle irtan ziran. Neure zoriona aberkide biori.

OSPATU DAN ASTARTIAN

Gokatu dute, emongo pelota tokian pelota partidu eder ba palas, Txindurri'k eta Laborda jauparri, eta abezlari, kementzuak, pelota aldi eder baten, ondorian garralle urten zan Txindurri.

BILBAO-KO OSATETXE'RA

eruan dute gaxo, gure lagun eta aberkide ona dan Olañetar tear Estepan, opaduat Goiko opaun onak zendatzia arin arin.

Gudaritzatik etorri yaku beran sendira Beitia'tar Kepa gure lagun ona.

ERMU ZALE.

TUXRE

Geure batzokija apaintzea diardue egunokaz, da esan deuste, laster sabalduko dabela bertara juan gaitien, ba biar diran baimen gustijak jaritzito eidagas egintarijakandik.

Baitabe diñoste, jai ãundi ta aberkoi bat egiteko asmuetan dabiltzalo egun ori opalduteko.

Barri onek pozez beterik ipinten nabe, zergatik ze geure errijan gauro arrenpremiña aundija dagoaloko, abertzaletasun gutzi ikusten dodalako, da bertara dagon gastedi ederra ikurita biorrepua dala edonok daki.

DATORREN IGANDE 3'AN

Kanpansar-mendira igongo dirala mendigoxale talde batzuk diñue, to uste dot emetik be juan biarko geunkela aldra eder bat, neska ta geure ikurriña lekuan da eusko abestijak abestuten.

Asi gaition, neure lagun gastiak, aberri aldez lan-egiten, batez bere aberrija esagutsen dogunok, erayutsen ez dabenari, azagutu eragiñ biar deutsogu, ederra, senduo dala ta, geure biarrian aurkitzen dala. Geure biarrion aurkitsen dala, gaur iñoz baño geiago, gaurko egunetan erakutsi biar dogu bostar gustijetan eusko gogua bixi dala eta bere buruaren jaulte esateko aberri oñi, zar deutsasen eskubidiak emoten asi biar dabela edo bestelan danok bat ginda urtsen asiko guziak.

USTE ESDANA.

MENDATA

Itz eder samur biotzekua
ezti gozo ta aldija,
nere belarri zurrak entzunta
biotzera ekarrija,
goijen asita beraño osuan
betetan deuts gurarija,
gauza eder ta on lastan ta kutun
au de bai ulaigarrija.
Beunek bakarrik ezkatuten dau
aske gure aberija.

Errijetako Jel-tar guztijok
asi gaitezan batian.
Gora Euzkadi dedar egiten
alde ta bartar guztian,
Jaungoikua ta lagi zarragaz
biziko gera bakian,
besten gauza rik ezdogu gura
geure aberrian,
Bakoitzai beria zor dautze danak
bizi diranak ludian.

Bete dagigun biotz biotzek
lendik esanitakua,
alde danetan zabaldu daigun
ikasti geutarikua
ondo egiñak artuko dabe
zari on ta egizkua
danoen Jaunak emongo dautze
zorijon betikua,
guztijontzako etoriko da.
maitasun bero sutsua,
biotz biotze gora Euzkadi
Gora gora Jaungoikua.

GASTE-BELU.

AZPEITI'TIK

ERIOTZA

Erruki Etxean, Elias'tar Pilipa amazazpi iizteko mutil gazte bizkorra Eleias'ko azken gauzez zendoturik ilaren 29'ko gabeko amaika ta erditan Jauna'ren Eskubetan utzi zuan bere gogomena (G. B.). Maiatzaren lencan izan zan obiratua lagun asko ikusi zan. Obi bize, ta Eleiz il-otoitian Bere aita anai areba-aide ta lagun danai, beren miñian laguntzen diet. Irakorle il zan aren alde. Aita Gure bat.

ORRENBEZTERAÑO

¿Zumardi Nagusian Erdal Idazti bat zegun-ta arrika urratu dute Jaunak? Ortarako biderik ezengo. Guk naidute genduxe gere etxe orma arrikatzea. ¿Orduan bezterenan guk zergatik arrikaratu? ta Bakardadeko etxea bertako bizkariak zer kalte egin diote iñori? Orduan zergatik egin berai...? Guk geren etxetan askatazuna nai degu. Zergatik opa bear ez diogu-bezteari. Azkatazuna bearbada daiezako bear da ba. Euzkal Errian ez gera bizi Orduan be. Euzkal Errian Azkatazun bat bear da Jaungoiko bat da. Lege Zarra ere bat. Onen aurrean. Euzkel Erriko bizlarriak Azkatazun batpean izan bear dute.

ERRIAN ON EZDANA

Erri Agintaria da. Zuzen bidetzeko. Ez katzea ondo dago baña arrikaratzea ez dago ondo Eguzki argitan arriak begirik ez badu ilunpetan gutxiago izango da ta arria bein-arreatu ezkero ezkuratzerik ez dago-ta oker aundia egitea nai ez arenoketik aundiana egitera eroritzen da leguan gertatu zan bezela, bat auzi naita beztia uratu ta bertan otsian ziran itz' arrek zer ziran?

Jaunkoikoaren Lege Deunak ori erakuzten aldu? ta Lege Zareko oiture ori alda?

URREKO ZOROA.

¡¡¡Eup!!!

Edari-ugorkitsu (licores) ta edari gozatzuen (jarabes), egin-etxea. Ardao biñuen biltokia.

Bilbon, calle Nueva, 3.

Suárez Llaguno

BARCELONA'TIK

Jagi, jagi euzkotarrak
Laizter dator eguna,
Laizter dator eguna,
Sorkaldian agiri da
Argi gozo biguna
Bere aurretik bildurtuta
Igesi dua illuna
Igesi dua illuna.

Jagi ta abil euzko gogo zindua, aldi onetan orixe egitia dagokitzuta, eta aldija zeuria dan ezkero ez itxoron ezeri be; ez itxaron euzkotarrak iñogandik ezer on andirik artuko dozulata, ez; or, Madrid'en igon diranak ondotxu ezagutzen doguz nortzuk eta zelakuak ixan dirian orain arte, eta orreik lengo samearen gañian daruoz buruba: los mismos perros con distintos collares.

Ze ikasbide emon legikie Prieto, Lerroux ta lagunak? Orreik nagusitzat ezagutzen dauzan errijak zentzunik ete dauko...? Ez, eztauko zentzunik, ezin legike euki, ta gaur errepublikea goraka dabiltzanak, laizter ikusiko doguz bestera.

España'tarren goguzko ba-pe asetzen enau, ba erri ori beti da olaxe: ditadura aldijan be olaxen, kendu zanian be bai; errepublikea ipini danian be bardin eta kenduko danian be bai, olaxe ixango da. Eta ez ikaratu irakurlia "erepublikea kendu" diñodalako ba errepublikeak nire ustez indar gutxi dauko, eta biar ba-da alderdi biajetatik indar gutxijen daukona.

Illarren amabika autezkundiak eztau esan nai España-errija errepublikatarra danik, errege edo monarkija orerijua dala baño, eta askok olan uste ba-dabe be olan ezta, monarkija arerijua ixatetik eta erepublikatarra ixatera alde andija dago eta au laizter ikusiko da, or gora-goraka dabiltzan askok uste dabien baño lenago: gorunzkuan erdiraño, berunzkuan ondarreraño.

Errepublika au Jaun-Goikua'ren bendistiuaz edo etorri zala ezan onelan aurreragoko idazkijan eta ixan be alaxe ixan da; baña olako aldakuntzak eta elburubak odola ixurita lortuten dira ta erromerijakaz, eta orduban ikusi nebnna erromerija ixan zan, eta esakuniak diño: barreonduen egiten dau, azkanengo egiten daunak, eta azkanengo ¿nok egingo dau barre? Azkanengi bare nok egingo daun ertakit; baña lenengo iregar egingo dabienak, nire ustez, urrian ixango dira errepublikea ipinteko alegiñik geyen egin dabienak: neu ibilli naz neure bizkarra berotzeko egurren billa.

JAUNGOIKUATASUNAZ ZIÑISTUTEN EZTAUN "OBISPO" BAT

¿Ba-dakien irukurle, obispo ori nor dan? Zaspi-milla ixentauko ba-zenduz be igarriko etzeunskija. Lenguak Bizkaiko udalen batzarra zalata Jel alderdijak udalei laguntzearren Gernika'ra juatia erabagi eban, eta laguntza ori egin daulako Lerroux ministruak kondenau egin eban Jel alderdija; baña Lerroux eta Lerroux lako gixonakaitik Jel-alderdijari, astuari ilargijagaitik baño ardura gutxijago dautso. ¿Zer uste eban ba Lerroux'ek, Jel-alderdija txadonak apurtu, lekai-lekaime etxiak erre ta lekaide ta lekaimiak erailtera loyala...? Zu nor zara, Jel-alderdija kondenateko? zuk be iñor kondena biar dozu...? lengo samearen gañian daruzu, ba, buruba: los mismos perros con distintos collares.

KAIN'DARRAK

Or agertu yakuz anaya batzuk, eta anayak dirala esan biar, naita geure gogua mindu esaten dogun bakotxian. España'n errepublikea jarri dalata arrotuta dabiltzaz, Euzkadi'ri "zorijona" ekarri dautsela, basterra gustijetan esanaz; orreik olaxe uste dabe, baña nik bestera uste dot; zoritxarra ekarri dautse Euzkadi'ri, eta begijak daukozanak ikusi dagijala urrengo duan au. Gustijok dakigu dictadura aldijan euzkotarren goguak gustiz mindu euskuzala, batez be abertzalionak, eta ikusirik dictaduria jausi zala Jel-Alderdijak euzkotarren gogua obetuago irabaste arren abertzale gustijen batasuna egin nai ixan eban egunik galdu barik; baña eguna juan eta egunak, asteak eta illak igarota be batasuna ezin ixan zan egin. Luzatze onek eta geure arteko ezbaideak gogo asko otzitu eban; baña gustijari eltzen yako aldija eta batasuna egiteko aldija be eldu zan. Jel-Alderdijan batu gintzan ba, abertzale gustijok eta ora or nun agertu dan beste "puspulo" bat Primo-Rivera'k egin eban lako "plebisito" bateaz: el pueblo está conmigo.

Eta abertzale orreik euren asmua aurrera eruan dabe ta alkartu dira ez Jaungoikorik, ez aberririk eta ez anayatasunik ezagutzen ezbabien alderdijekaz: Jaungoiti, abertzale ta anayak diranakandik aldendu ta. Eurak diñuenez aberri onetako abintza andijak edo egin dautsiez Prieto, Lerroux ta pamililiak, eta orren esanak iruntzita aldendu dira gugandik. Eta orain zer, nundira abintzak? Abintzarik ezta bete oindiño ezetan be, eta gero be beteko ezta, euzkotar gustijok batu ta geure eskubidiak aldeztuten ezpa-doguz, eta orreik abinduba ez betetziak ezau bape ikeratzen, ba orreik baño urragokuak be orrenbeste egin daukube iñoz, geure uste osuaz euren eskubetan ipiñiriko gazak ukatu eta ukatu dabien orreik geure anaya orretxik dira. Orain eurei be beste orren-beste egingo dautsie, esakumiak diñon lez: negurri berberaz negurtuko zara.

Ez Jaungoikorik, ez aberrik eta anayatasunik ezagutzen ezbabien gixonei zer ardura dautse abinduekaitik? Gixonei abinduba ukatu edo astuari ¡arre! esan, bardin xamar orreintzat.

Eta orduban ikusiko dabe gure anaya orreik zelako mingarrija dan uste onez lagundu eta gero ukatuaz erantzutia: ez egixu egin iñori, zeuri egiterik nai eztozunik.

EMENDIK LORTU LEGIKE

Euzkadi'ren zorijona nai ba-dogu oraitxe da aldijá, baña onena galdu dogu. Dictaduria jausi zanian abertzale gustijok batu ta lenengo-lenengotik jardun ba-gendu lanian, euzkotar askoren goguak iras'ko genduzan, eta aldi onetan iñogaz batuta juan barik be aberri-azkatasuna-giltza eskubetan eukiko genduban; baña gaur eztaukogu ezer be, eta ezer lortuko ba-dogu, Euzkadi'ko udal gustijak batu biarko dira aberri eskubidien aldez, osterantzian eztogu ezer be lortuko. Ara or nun gelditu diran giure anayei abindu eutsiezan abintza andijak: Donosti'ko "pactua" eta Urumea'ko "patua" bardinexamarrak; eta bijak baño nayago "plato" bete platuz.

GALDAKANO

MENDIGOXALIAK BIZKARGI'RA

Igande onetan, goxeko zaspirak inguraban batuko dira Urgoiti'n Bizkargi'ra, amarretako jaupa entzuteko "Aberri-aldez" ixena artu daben mendigoxale aldrakuak duazanak.

Aurten lenengoz urteten dabe ta bai-da euren artian pora ikurriña zabal-zabal eruateko baster gustijetara.

Mendigoxale azkarra onekaz juan nai dabenak nora zuzendu bai dakie egun orretan. Zaspiretan Urgoiti-n.

IZPARR BALTZA

Lengo astian jaunak-k deitu-ta ludi onetako atzekabijak itxi ebazan Barrenetxea'tar Gergori-k (G. B.).

Adizkide azko doguz sendi orretan eta gustijai atzekabian laguntzen dautzogu.

Irakurle gustijai Barrenetxea'tar Gergori gogo-aldez eskatzen dautzet otoi dagijela.

GEXOTEGI-RA

Geure idazlagun dan "Algorri" ren aita azpaldijan gexorik egon da ta Bilbao-gexotegi-ra eruan dabela entzun dogu.

Ainbat lasterren osatzia opa-dautzogu.

ARPIDIA ZABALDU DA

Irukoitz egunian (J. L.) Euzko Gastedija ren zabalgundia ospatuko dala-ta arpidia zabaldu dabe.

Entzun dogunez egun ori aundikirò egingo ei dabe ta Galdakano gustiko emon biarr leukez, jai porkorr eta atseginkorrak eratu daltezan.

Zuk irakurle, ¿zer emongo eie dozu? Nik uste dot baitz ta ganera zeure adizkide ta ezagunai bere iragarriko dautzozula, biarr dan txindija batu daiten.

NOZ EDO NOZ

Gobernuak erabagija artu dabela edo irakurri dogu aurrerantza errijak berak epaikarijak autuko dabezala.

Erabagi ori irakurri ba'dau erri onetako epaikarijak bere artian ezango eban, euzkel-ixena'ri euki dautzedan amorrzuba nai ta ez gorde biarra, ala ¿errijak bera autetziko ete dau aurrerantzarako bere?

Gobernuak artzen dabenian erabagia, orain artian euki dogunak beste urterako eztziela iraun urrengo datorrenak, ona ba'litz, bai, betiko bere nai ba dau, baña Gandasegi-Gorrotxategi gandik alde ¿ezta "Tximelarpeko"?

BILDUR.

GETXO'TIK

EUZKO LANGILLIAK

Barikuban duaz Lexona'ko Euzko langilliakaz alkartuta Urduliz'ko errijan Lorrilla lenengo'ko eguna ospatzeko. Ori dala ta begira emen zeintzuk ixango diran an egingo diran jayak. Goixeko amar terdijetan jaupa nagusija abestua ta onen ostian ezpatadantza aldra bigaz. Orduba-tetan bakoitzak jateko daduan zorrori kontuba emongo dautso.

Arratsaldijan euzko dantza ilunderazte txistulari talde bigaz.

GURE EUZKO ETXEA

Ba duaz gertauten eta ederto geldituko da Gabaro datoz ixenak emoten bazkide ixateko garte asko. Laster ixango doguz irureun bazkide aurrera ta erri guztija abertzaletu artian.

EUSKEL IKASLEAK MADRID'EN

Aldi ontan, sarritan ikusten da Euzkadi'ko izparringietan Madrid'eko Agrupación de Cultura Vasca'ren berriren bat.

Eman dezayegun gaur euzkel irakurleari ere, lagunarte onen barria. Bazkun au, zer da?, nora dua?, zer ete nai du?

Emen ikasten ari diran euskel ikasle batruek biltzen oi ziran igaz, gure erriari dagozkion gayaz itz-egiteko ta batzar ayetako jardunetatik sortu zan Agrupación de Cultura Vasca deritzayen bazkuna, guk bazkide alkarren artean, maitero, "txabola" deitzen dioguna.

Urte bat dazana jayo zanetik eta atsegingarria da, benetan, ez jokuri ez eta edaririk daguen tokian, eusko gasteak ikustea, batzuek liburutegia antolatzen, ayek azkenengo itzaldia dazten egunkariai bialtzeko, auek irakurtzen, danok lanean eta gañera larunbatero gasterik gayenak zina edo antzoki edo kafera joaten diran orduan, afaldu ondoren, txabolara joltzen dute gure mutillak eguneko itzaldia entzujera.

Eta au dana, zertarako? Asieran artu genuen asmoa betetzeko, Euskal-erriari bear bearrezkoa zayon Ikastetxe Nagusia lortzeko; gure errian, aberatz eta txiro, uri ta baserriko, gustiyok ikasi desaketen. Baña lortuko al-degu nai doguna? Ez, guk bakarrik ezin izango degu aurrerapen ori-irabazi biotzez maite degun erri arentzat. Jardun ontan ari izan dira lendik ere gu baño geyako zekienak, geyako al zutenak eta ezer ere etzuten iritxi arrazoiz beterik eta bear dan eran eskatu arren, zergatik? erriak arazo ontan bere naia agertu etzuelako ta auxe egin bear degu orain gure naia agertu, baña gustiyok! naiz oraintxe bear duteuk naiz bestiok, bar edo etzi bear ori izan dezaketenok, naiz gizon ede emakume, aldunak eta beartsuak, Euskalerri guziak ekin bearko du arazo ontan len-bai-len Ikastetxe Nagusia gure mende izan dezagan.

Orain Errepublika sortu zaigu: dirudienez, gure burujabeak izango gera, gaur gero, gai askotan; aspalditik leyatu izan degun askatasunari urreratzen gatraizkio; erraz agingo dezakegu Euzkadi'ri dagokien ainbat gauza; ta bere artean, ezta izango Ikastetxe Nagusia'rena garrantzi aundienetako bat? Ala deritzagu ta orregaitik len erdi estuntzatu-zerbait egin baldin badenuen asmo orren alda, gero ta kementsugo jarrai bearko diegu orain, gure elbururaño eltzeko. Batu gaitezen ba euzkeldun erok eta gure arteko ezbaiditak alkan utzirik, lan egin dezagun kemen eta gogor, gure orriak orixe lortzeko.

Euskera gure ele mintzairi an ere, biotzez lotzen da gure txabolan eta lengo dictaduraketak emengo Atenas itxi zutenean, gure baz'unean ematen diran toki artan Euzko-Ikaskuntza'k antolatuta dituen euskel ikaskirunak.

Ikastetxe Nagusi ori lortu ba dogu, zeinbat eztu irabaziko gure mintzoera onek gero?

Jarraitu ba, ta... laister ikusi al dezagun Euzkadi guzis... Euskalduna.

UTARRA.
Agrupación de Cultura Vasca'kua.

EGUNEKUA

EUZKADI'TIK

ATZOKO JAYA

Bilbao'ko txaidiak yentez beterik eguazan atzo, lorelleko bigarren eguna jai egiten eben ba "El Sitio" deritxon batzokikuak. Prieto eta Domingo jaunak bere ikusi genduzan Mallona'ko iltegira egin zan ibilketan. Unamuno, Franco, Queipo de Llano, Aldasoro eta abar etorri ziran jai oneik goralduteko.

Ezin ulertu ixan dogu jai orren zegaltija. Liberalak bere ba bakalduntarrak ixan ziran eta zozialistak ziran lenago burgesan jaya geituten eutsoenak egun onetako jayari. Yentes asko ixan zala egija da, baña txaidietan etzan ikusten poztasun andirik ta zaletasunik. Correo txaide guztijan lau ikurrin zenbatu genduzan soiljk. Beste kale batzutan bere bardintxe. Erkaltzale asko daguala diñoe baña oraindik eztira agiri. "Club Náutico" tik Prieto jaunari txalo egiten eutsoenak, zer edo zer meresi eben, len bakalduntarrak amorratubak baltziran eta, Mallano iltegijan iltzaldi batzuk egin ebezan Prieto ta abarrek, baña Euzkadiren aldez baño España'ren aldez amore andija agertu eben ezkero, eztaukogu zetan atzalpenik egin.

NAPARRUA'TIK

Naparrua ziar juan dira Jeltzaliak len bai len pizkortu daitezan errijetako udala guztijak Euzko Erkaldietzaz zaletu daitezan. Naparrua beti ixan da euzkoen buru, ta tamala ixango orain bere otsik entzungo ezpaleitike.

Lau erkijok batzar andi bat egin biar dabe euren udalak baturik eta antxe eratu euren autonomi arautegija. Gipuzkoa ta Bizkaya tik beredin belbil juan dira ta uste dogu Naparrua'koyentiak pizkortuko dirala.

COMUNISTEN BATZARRA

"Campos Elíseos" antzokijan egin eben euren batzar edo mitiña comunistak eta notiñik naiko batu zala esan biarko, egija baita. Ganez egun gustija, geyenak entzunmiñak eruanak ziran arren. Jeltzalian aurka ezer ez eben esan, osterantzian guztijentzako ixan ziran arrikadak. Amayeran kalez kale ibilketa bat egitia otu yaken baña urten ordukoxe erritzañak tiroka asi yaiezan. Eurak be lotan etairan geratu, an ikusiko zenduzan bata bestiari tiroka. Zaldi bat ilta jausi zan lurrera. Zauritubak ogei bat dira, ta erritzain ba oso txarto ei dago noiz ilko.

Comunista orreik okerrak ibilyatruz gero kalez kale erkaltzaliak geyen daukoela ta. Zozialistari zer gura egiten ixti badautse, zegaitik ez eurai bere? Langillian eguna ei zan atzo baña katoliku ziran langilliak eta abertzaliak ez eben euki tokirik. Orain zozialistak buru dirala uste dabe-ta iñor baño jauntxubago egin yatzuz.

UDALEN OYUBAK

Erri askotan entzuten dira udalen oyubak, erkaltzaliak zer nai egiten dabelako, auteskundietan urten ziran ziñegotzijak alde batera jaurtita. Lan orretan nagusi yatzuz erkaltzaliak, baña ederto lagunduten dautsoe beste batzuk bere, oraingo upetista barrijak. Erkaldia uteskundiak bide dirala agertu bazan, orduban urten ziran ziñegotzijak itzal andijena meresi dabe.

Olako oldozpenak baña arin aartuten dira agintari ixatera eltzen danean bakoitza. Len bere esan genduban, erkaltzaliak bere ezer be eztauskubela emongo, abintza andijan egin arren eurak menpian egon ziran orduban. Laguntza biar dabena edozer abinduten dau, baña gero gaizkatuten bere buruba ikusi ordukoxe, ostikadea emoten dautsube.

OÑATI'N

Oñati'ko abertzaliak jai andi bat egingo dabe gaur, udaletxera lenengoz igon direlako abertzalerik geyenak. Agirre'tar Joseba Andoni eta Altzeta ixango dira izlarijak. Orueta bere antxe ixango ete dan uste dabe, baita Enbeita ta Gallastegi'tar Eli bere. Mitin ostian oturuntza bat egingo dabe. Ederto egiña oñatiarrak dagijena. Onela piztuten dira errijetako abertzaliak eta guztijak alkartasuna ederrean aurrera lan egiteko bere zaletuten dira. Agur egiten dautsogu Oñatiarrai.

ALDUNDIJA?

Nork uste ixango ete eban Bizkai'ko aldundija iño elduko zala zozialisten eskubetara? Orra or ba zelan jazo dan orainguan. Jaurle jaunak ixantau dauz bost gixon aldundija eratuteko eta bi zozialistak dira, bat erkaltzalia, beste bat azkia ta azkenegua abertzalia. Martinez de Aragonek eztauko orren errurik, beste batzuk baño. Bide okerretik duaz ori dagijenak eta ikusiko dogu zer jazoten dan. Astija ixan bedi ziñaldari. Orein eskutik pozik duaz abertzale batzuk baña laster ikusiko dabe zer jazoko yaken. Zozialistak baxen eurekoragorik iñun ezta. Toki orotan eurak dira buru.

ESKUALDUNEN LORATEGIA

Pierre Laffitte Jaunak XVI'garren mendetik hunateko-liburuetatik bildua. Leher, zatia (1645-1809) Baionan 1931'an. Gaurkoz axaletik eman diogun begiraldiaz esan dezakizugu atsegin zaigula. Ogeita amalau idazle euskaldunen edo gelagoren irakurgai nuskak eskutara ba dekarzkigu. Geldixago itzegingo dizugu berna beste beste noizpait. Zorionak eta sarrixa goraño.

Orri onetan euzkel iragarkiak ikusten dabezan irakurleak iragarkia ipiñi dabenaren etzean erosi gurako dau, beragaz ulertuteko euzkeraz izpartuten dana ba analetzat eukiko dau

CARNET POLITICO

SOBRE LA CONSTITUCION DE LAS DIPUTACIONES

A raíz de constituirse la Diputación gipuzkoana nos vimos en el trance de consignar nuestra protesta por la forma en que se había procedido.

Y al llegar la vez a Bizkaya no ha variado el procedimiento.

El hecho de que en la edición anterior dedicase EUZKADI su fondo a tratar esta cuestión con toda la amplitud que su importancia requería y haciendo aportación de razones irrefutables de todo punto, reduce nuestra actuación a los límites estrictos de consignar una protesta. Conste, pues, y en tono enérgico, formulada.

LOS QUE TRATAN DE ERIGIRSE EN DEFENSORES DE NAPARRA

Es curioso el caso. Y nos haría reír si no nos indignara.

Algún periódico y varios señores que, aunque en Iruña estén, ni son napartarras ni pueden presentar en su larga historia una sola nota de nabarrismo, ponen ahora el grito en el cielo, protestando de que Naparra desee unir su suerte a las tres restantes regiones de Euzkadi.

Dicen que Naparra posee leyes propias y que no puede ser absorbida pasando a depender de Bilbao.

Y lo curioso del caso es que todas esas gentes, monárquicos y upetistas, no dijeron ni una palabra—ni menos la escribieron—en protesta por el hecho de que desde Madrid se dejase reducida a la más mínima expresión la libertad de Naparra.

Y es que Naparra no les interesa en lo más mínimo. Para ellos lo único sustantivo es la monarquía, el upetismo, el somatenismo... y el antinabarrismo.

Porque, vamos, a nadie que tenga dos dedos de frente y se halle en posesión de un cerebro que rija bien se le puede ocurrir que, formando parte Naparra del Estado de Euzkadi había de estar supeditada a Bilbao. Quien tal diga demuestra bien a las claras una testaruiez inusitada o una capacidad mental en cuarto menguante en orden a lo mucho que estiman Bizkaya y los vascos todos sus libertades.

Porque en Euzkadi se estructuraría a base de dar a cada una de sus regiones todos aquellos atributos que requiriesen.

DEL GOBIERNO DE LA GENERALITAT DE CATALUNYA

El ilustre presidente de la Generalitat de Catalunya ha recibido, entre otras muchas, las siguientes adhesiones:

"Ilustre señor presidente:

Mis investigaciones científicas, fruto de más de 25 años de estudio, contenidas en cinco volúmenes, *escritos en catalán* dedicados a la tierra catalana, me han permitido conocer y amar a Catalunya hasta el extremo de considerarla mi segunda patria.

No puedo ser, por tanto, ajeno a la emoción popular, que comparto y me induce a dirigiros la más entusiástica felicitación por vuestra gesta triunfal, que os coloca entre las más destacadas figuras históricas como una estela luminosa que aclarece un pasado de intolerancia y de opresor despotismo.

Al recordar las persecuciones injustas de que se os hizo objeto por unos Gobiernos transitorios de la República vecina y hermana, he de expresaros las condolencias de sus buenos ciudadanos, que os admiran y os aclaman con entusiasmo por vuestra heroica y caballeresca conducta, que ha hecho posible que la libertad estienda sus alas sobre Catalunya, libre de sus destinos, dentro de una federación libre de todos los Estados libres de Iberia.

Aceptad, señor presidente, etc.—*M. Chevalier*, geólogo de Catalunya."

Por nuestra parte diremos que se trata del autor de unos excelentes estudios geológicos de Catalunya editados en varias obras.

◆ ◆ ◆

"Señor presidente:

La más modesta de las entidades catalanas, la que lleva 29 años de actuación netamente catalanista, la que con su gloriosa Escola Mossen Cinto ha educado a más de 3.000 niños la mayoría de los cuales son ciudadanos conscientes de los deberes patrióticos que en nuestra escuela aprendieron; con la mayor emoción se dirige al ilustre caudillo de la patria, al que con una gesta de heroicidad culminante ha conseguido para Catalunya las más altas prerrogativas, para rogaros, señor presidente, que aceptéis nuestra felicitación más entusiasta y nos queráis considerar como a fieles servidores vuestros en cuanto a la patria conviniere.

Vivid muchos años para el bien de Catalunya.

Por acuerdo del Consejo.—*Juan Bartre*, presidente; y *Josep Casés*, secretario."

LA ENSEÑANZA EN CATALAN EN LA UNIVERSIDAD DE BARCELONA

De nuestro querido colega "La Rambla" tomamos la siguiente noticia:

"El lunes de la semana pasada se celebró la reapertura de clases en las Universidades de todo el país. En la de Barcelona todo marchó como sobre ruedas, ya que entre el elemento estudiantil el entusiasmo era muy grande y el orden fué absoluto.

Algunas clases se dieron en catalán.

El comisario doctor Josep Xirau, antes de empezar la suya, de Derecho civil, pronunció varias palabras para conseguir la satisfacción que le producía el poderse expresar en su lenguma, cuyo uso no les tendrían que haber privado nunca. Dijo que estaba autorizado para dar la clase en catalán, pero que supeditaba su deseo a lo que los estudiantes decidiesen. Añadió que si en su clase había algún alumno que no entendiese bien el catalán le daría las explicaciones en español, igual que hasta ahora.

Esta actitud tan digna le valió muchas felicitaciones de todos, muy especialmente de estudiantes vascos y canarios, quienes dijeron que aunque no sabían hablar el catalán lo entendían perfectamente y que, por tanto, se sumaban a los deseos de la mayoría.

UNA MAGNA ASAMBLEA GALLEGA

En Coruña, durante la primera decena del mes en curso, se celebrará una Asamblea magna con vistas a la constitución del Estatuto gallego.

Se da como segura la asistencia de las siguientes entidades, entre otras:

Federación Republicana Gallega, O. R. G. A., Partido Republicano Nacionalista, Agrupación Nacionalista Independiente de Santiago, Grupo Autonomista, Federaciones Agrarias, Seminario de Estudios Gallegos, Irmandade da Fala y Academia Gallega.